20 13

GUADALUPEKO GOTORLEKUA

Azken karlistadan bukatu egin zutela, 1876. urtean, Armadak Pirinioekin mugatzen duen gotorlekua prestatu zuen, bertako gotorlekuak zaharkituta zeudelako. Trintxeradun alorrez osatutako multzo bat da eta etsaien tropak sar zitezkeen Pirinioetako lekuetan kokatzen zituzten, besteak beste: Oiartzun (Gipuzkoa), Iruña (Nafarroa) Jaca, Biescas eta Canfranc (Huesca), eta baita Gironako hiriburuaren inguru ere.

Trintxeradun alor bat lurralde zabal bat da (20x20 Km Oiartzuni dagokionez), armadaren gorputzak aurrera egiteko prestatuta (38.000 soldadu Oiartzungo kasuan). Bertan, ospitale militarra, munizio biltegiak, artilleria parkea, kuartelak, etab. kokatzen ziren. Puntu egokietan artilleria barne hartzen zuten gotorlekuak instalatu ziren, batzuk besteak defendatzeko gai izateko asmoarekin.

Oiartzungo trintxeradun alorraren kasuan, zortzi gotorleku diseinatu ziren eta horietatik hiru guztiz bukatu egin ziren: San Marcos (1888), Txoritokieta (1890) eta Guadalupe (1900); bat hasi egin zen: Erlatiz eta gainontzeko lauak ez ziren eraikitzen hasi (San Marcial, Belitz, Arkale eta San Enrique).

Guadalupe Andre Mariko gotorlekua mota poligonaleko gotorleku bat da, hau da, 750 m luzera, 8 m sakonera eta 8 m zabalera duen zulo batek inguratzen du. Bertan, bost kanoiek luzetara disparatzen dute, kaponerak izeneko baterietatik. Zulo hau kanpoaldetik inguratzen duela, estalitako bide bat dago, 500 soldaduentzako tokiarekin. Horrek, lehenik eta behin, infanteria etsaiaren edozein erasoaldi baztertuko luke.

Gotorlekuaren barrualdeak 30.000 m2 azalera du eta bertan honako guztia hartzen du barne: artilleriako hirurogei pieza baino gehiago, bost patio, bi kuartel 1000 soldaduentzako lekuarekin; pabilioiak gobernuarentzat, bere laguntzailearentzat eta infanteria eta artilleria ofizialentzat; ofizialen eta troparen sukaldeak; komunak, letrinak, hiru munizio tanga handiak eta txikiagoak ziren beste hainbeste, elikagaien biltegiak, etab. Horrez gain, ur-horniketa eta saneamendu-sare propioa dauka. Aurreikusitako 69 artilleria pieza gehienak gotorlekuaren goiko aldean gordetzen dira, kasamatek, parapetoek eta trebesek babestuta.



Guadalupeko Gotorlekuaren ate nagusia, Juan Roca ingeniari militarrak diseinatuta.

Eraikuntzan harresietarako harria eta bobedetarako armatu gabeko hormigoia nagusi dira. Bobedetako lodiera 2 metrotara iristen zen, horregatik, inauguratu bezain laster zaharkitu egin zen, artilleriako jaurtigaiak nabarmen hobetu ziren eta erraz suntsitu zitzaketen, hainbat metro lurrez estalita egon arren. Hegazkin militarrak agertzearen eraginez gotorlekua ere ahulago bilakatu zen.

Artilleria gordetzeaz gain (1960era arte), ofizialentzako presondegia (1969ra arte), erreklutak hezteko zentroa (1940 eta 1950eko hamarkadak) eta atxiloketa zibileko zentroa izan zen (1934 eta 1936 artean). 1996. urtean Hondarribiko Udalak erosi zuen, eta orain udan eta asteburuetan bisitatu daiteke.


Gehiago jakiteko: *Diccionario para sobrevivir en el Fuerte de Guadalupe* / Juan A. Sáez. Hondarribia, Arma Plaza Fundazioa, 2017. 334 p.




“Ordoñez” 15 cm-ko Tutua duen Burdinazko kanoi bat Gotorlekutik itsasorantz disparatzen 1906. urtean. 10 km inguruko irismena zuen.



Eskuineko Obraren ikuspegi orokorra. Elementu makurra artilleriako kuartela da. Bertan, zuloa ikus daiteke argazkiaren ezkerraldean.



Guadalupe Andra Mariko Gotorlekua. Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 595767 m // Y: 4802643 m// Z: 205 m (irudiaren erdialdea).



Guadalupeko Gotorlekua. Manposterietako Planta. 1. Zuloa. 2. Patioa. 3. Infanteria kuartela (Behe solairua) eta kasamantak dituen bateria (goi solairua). 4 Infanteria kuartelaren behe solairua. 5 Munizioak banatzeko biltegia, ezkerraldeko obra. 6 Bolbora eta su makurren bateriako jaurtigaien biltegia. 7. Su makurren bateria. 8. Kaponera (3 guztira). 9. Erdi kaponera (2 guztira). 10. Artilleria Kuartela. 11. Artilleria ofizialen pabilioiak. 12. Bateria barbeta moduan jarritako baterian sartzeko arrapala. 13. Erdialdeko Obra patiora igarotzeko aldaparako sarrera eskailera. 14. Malkar galeria. 15. Infanteria kuartelaren behe eta bitarteko solairuak batzen dituen eskailera. 16 Patio nagusiaren eta Erdialdeko Obraren arteko komunikazio poterna. 17. Guardia taldea. 18. Ezkerraldeko Obraren patio nagusira sartzeko poterna. 19. Kontra malkarreko eskailera. 20 Zuloa. 21 Glazisari aurre egiteko estalitako bidea. 22. Letrinak. 23. Biltegiak. 24. Gobernatzailearen pabiloia. 25. Infanteria ofizialen pabilioiak. 26. Sukaldeak, letrinak eta elikagaien biltegiak. 27. Zubi-lasterra. V. Obren kokapena. X. Ezkerraldeko Obra. Y. Erdialdeko Obra. Z. Eskuineko Obra.